

Indarrean dauden hitzarmen sinatuak

1

ENKARTERRI -GREEN

Helburua: Eskualdeko Garapen Plan baten bidez, enplegua sorraraztea. Plan horrek eskualdea enplegu iraunkorra sortzeko konpromisoa hartu duen lurraldea dela adierazi nahi du, eta honako xede hauek ditu: enpresak sortzea, dauden enpresak sendotzea, eskualde-nortasuna sortzea, gure potentziala esportatzea eta inbertsioak erakartzea.

GAZTEDI ENKARTERRI

Helburua: gazteentzako berariazko laguntza emateko politikak garatzea, gazteen bizitzako hainbat esparru lotzeko: prestakuntza, lana, etxebizitza, nortasuna, hizkuntza, parte-hartzea, lurralde-oreka, gizarte-koheretza eta -konpromisoa, erkidego-garapena, ingurumena, garapen iraunkorra eta mugikortasuna.

ENKARTERRI GROUP

Helburua: Enkarterriko enpresak bultzatzea, parte-hartzea sustatuz, proiektu indibidualak bultzatuz eta lankidetzaren inguru bat sortuz, aberastasuna eragiteko eta eskualde horretara inbertsioak erakartzeko.

LANBIDEREKIN LANKIDETZAN ARITZEA

Helburua: Udalaren eta Lanbideren arteko lankidetzaren mekanismoak ezartzea, euren eskumeneko prestazioak eta zerbitzuak kudeatzeko eta izapidetzeko beharrezkoak diren datuak bata besteari emateko eta biztanleen errola ondo kudeatzeko.

BITARTEKO UDALTZAINEN LAN POLTSA

Helburua: uda garaian edo beste egoera batzuetan bete behar diren Udaltzaingoaren lanpostuak bitarteko-erregimenean betetzea, era arin eta eraginkorrean, udaltzain horiek aukeraketa-prozesua gainditu dutela eta prestakuntza jaso dutela bermatuz, eta dagozkion

zereginak egiteko gaitasuna dutela egiaztatzea.

BEHARGINTZA-ENKANTUR ERAKUNDEARI UDAL LOKAL BATEN ERABILERA LAGATZEA ENPRESA MODULUAK INSTALATZEKO

Helburua: Sodupeko lehengo Ikastolako eraikineko eta oraingo Gueñesko Kultur Etxeko aretoak kudeatzea, berrikuntza-guneko proiektuak gauzatzeko, eta horiek bultzatzea, Enkarterriko enpresen berrikuntza-proiektuak garatzeko.

EUSKO JAURLARITZATIK DESZENTRALIZATUTAKO ERREGISTROA

Helburua: udalerriko biztanleei udalera etortzeko aukera ematea, ez bakarrik toki-erakunde gisa, baizik eta euskal administrazio deszentralizatu gisa, euskal hiriburuetaraino alferrik joan ez daitezen.

GORDEXOLAKO ETA ARTZINIEGAKO UDALEKIN LANKIDETZAN ARITZEA, KIROLGUNEKO TARIFAK MERKATZEKO

Helburua: Gordexolan eta Artziniegan erroldatutako pertsonen Gueñesen erroldatutakoek ordaintzen duten zenbateko berbera ordaintzea udal-kiroldegia erabiltzeko.

PARKE TEMATIKOKO PROIEKTUAREN KUDEAKETA ETA AHOLKULARITZA

Helburua: inguruko babestu beharreko balioak errespetatzen dituen turismo-garapena sustatzea, inguruko baliabide naturalen baldintzak eta erabilera hobetzea, parkeko ondarearen balioa handitzea eta tradizio-adierazpenak eta kultura-erroak garatzea.

LANKIDETZAN ARITZEA, TRAFIKO ZEHAPENETATIK ERATORRITAKO GERTAERAK BIDE ELEKTRONIKOETATIK JAKINARAZTEKO

Helburua: Euskal Autonomia Erkidegoko jakinarazpen-plataformaren bidez ematea unean bertan bidaltzen ez diren salaketa-jakinarazpen elektronikoak eta zigor-prozeduratik eratorritako gainerako jakinarazpenak, baldin eta Udalari badagokio horiek izapidetzea.

ZARAMILLOKO ELIZAKO ARETOA UDALARI LAGATZEA

Helburua: ekintza soziokulturalak antolatzea.

REDESA (RED ELÉCTRICA DE ESPAÑA, SAU) ENPRESAREKIN LANKIDETZAN ARITZEA

Helburua: ekarpen ekonomikoa egitea, udalerrian urtero egiten den Ekokultura azokari eusteko (ingumenaren, garapen iraunkorraren, energia berriztagarrien, bioeraikuntzaren, nekazaritzaren eta abeltzaintza ekologikoaren inguruko azoka da).

TRAFIKOKO BURUZAGITZA NAGUSIAREKIN ETA FEMPrekin LANKIDETZAN ARITZEA, INFORMAZIOA TRUKATZEKO ETA ADMINISTRAZIO LANKIDETZAN ARITZEKO

Helburua: biztanleak probintziako eta tokiko trafiko-buruzagitzetan egunero egiten dituzten izapideak arintzea, matrikulatutako ibilgailuen pertsona titularren helbideak eguneratuta edukitzeko.